



“Zentzudunakaz dantzan”, eta ez otsoakaz

Buruko osasuna ez da buruko nahasmendurik ez izatea bakarrik. OMEak definitzen dauanez, ongizate-estatu da eta bertan pertsona bere gaitasunez jabetzen da, bizitzako tirabira arruntei aurre egiteko moduan da, emonkortasunez lan egin leike eta ekarpena egin alkarteari.

2017ko martxoan, Giza Eskubideetarako Batzordeko Kontalariak kontatu ebanek, buruko osasun barik ezin dala osasunik izan argi eta garbi erakusten daben probak egon arren, buruko osasuna eta osasun fisikoa ez dira bardintasunezko baldintzetan jasoten nazinoetako politika eta aurrekontuetan.

Mundu osoan, osasun arlorako aurrekontuen %7a baino gutxiago zuzentzen ei da buruko osasunera. Sarrera txikiak dabezan herrialdeetan arlo honetara urtean eta pertsonako zuzentzen dana euro bitara be ez da heltzen. Inbertsionaren zatirik handiena erakundeetan eskaintzen dan iraupen luzeko arretarako eta ospitale psikiatrikoetarako izaten da eta ez da osasunaren osoko sustapenerako politikarik garatzen.

Ahazten diran kontuek ahaztutako pertsonak dakarrez. Psikiatriaren eta buruko osasunaren inguruko arreta eskubideen bortxaketa nabarmenez markatuta dago, esate baterako, medikuntzaren izenean burututako lobotomiak, euskailu mekanikoak baliabiderik ez izateagaitik ...

Nondik gatoz?

Hamarkadetan, buruko osasunetarako zerbitzuak desgaitasun intelektual, kognitibo edo psikosoziala daben pertsonen, autismoa daben pertsonen eta nagusi diran kultura, gizarte eta politika arauetatik aldentzen diran pertsonen aurkako baztertzea, ardurarik eza, gogorkeria eta tratu txarrak eragin dituan paradigma bio-mediku erredukzionistak gidatu izan ditu.

Gizarteak buruko osasunaren arloan giza eskubideen eremuaren bilakaera eragin dauan paradigmatik aldatzea ahalbideratu dau. 2006an [Desgaitasunen bat daben Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena](#) onartu zan eta honi esker buruko osasunaren zerbitzuetan giza eskubideak bortxatzeko joera atzean izteko helburua finkatu zan. Ahalik eta osasuntsuago egoteko eskubidea lagungarri izan daiteke aldaketa hori sustatzeko eta gizon eta emakume guztiok buruko osasunaz gozatzeko dogun eskubidea eraginkortasunez garatzeko eremua eskaintzen dau.

Hamar urteren buruan, aurrerapena, geldoa da. Ordezko hainbat tratamendu eraginkor, onargarri eta zabalgarri arretarako sistematik kanpo dago, desinstituzionalizazioa gelditu egin da eta inbertsioak eredu biomedikura zuzentzen dira orain ere. Hainbat herrialdeetan, zentro psikiatrikoak itxi izanak makina bat lagun itzi du kalean edo kartzelara eraman.

Asimetriak larriagotu egin dira industria farmazeutikoaren finantzaboterearen eta horrekin ezarritako itunen eraginez.

Norantz jo nahi dugu?

Buruko osasunaren inguruko arazoak izango dira desgaitasunen arrazoi nagusia 2030ean. Gure ongizate-sistemak, ahulenak bere batian txertatu ez ezik, txikitatik kanporatu egiten ditu sistema normalizatuetatik.

Eredu psikosoziala paradigma biomedikuari emandako erantzun



OHARRA:

.....
**GIZARTE ESTIGMA
ETA BEREIZKERIA
OSO KALTEGARRIAK DIRA
OSASUNARENTZAT**

#NOTEHAGASELLOCO

bezala sortu da. Eredu hau eragile biologikoetatik harago doa (honeek baztertu gabe) eta esperientzia psikologiko eta sozialak buruko osasun eskasa dakarren arrisku-eragiletzat ala ongizatea dakarren eragile positibotzat jotzen ditu.

Osasuna izateko eskubide eragin-korraren gauzatzeak danok, batez be pobretasunean eta ahuleziaz jantzitako egoeretan bizi diranek, alkarteko eta osasun zerbitzuetako eremu juridiko, politikoetan erabakiak hartzean parte hartzea eskatzen dau. Pertsona guztiak ahaldundu euren osasun eta ongizatean eragiten daben erabakietan era esanguratsuan parte hartu daien. Funtsezkoa da berariazko interesen defentsarako ekimenak, bardenen arteko babeserako sareak eta erabiltzaileek eurek sustatzen dabezan interesen defentsarako bestelako ekimenak, eta lan-metodo barriak, babestea, osasun-zerbitzuen garapen eta eskaintzan partaidetza adierazgarri eta esanguratsua ziurtatuz.

Garrantzitsua da buruko nahasmenduaren diagnostikoak pertsonen bizitzan dauan egiteko korapilatsua autortzea. Hainbatek diagnostiko-kategoriak baliagarritzat jotzen badabez be zerbitzuak

eskuratatu eta euren buruko osasuna hobeto ulertzeko, askok ez baliagarritzat eta estigmatizatze bidez hartzen ditu. Buruko osasunaren diagnostikoak, batzuetan, txarto erabili izan dira eta, ondorioz, dalako nortasun eta dibertsitate batzuk, giza miseria medikalizatze joerak barru, patologiatzat hartu dira. Lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexual izatea patologiatzat hartuz, pertsona honeen nortasuna gaixotasuntzat hartzea ekarri eban, estigma eta bereizkeria areagotuz.

Estigmatizatutako gizataldea?

Estigmatizatzea, gizatalde jakin bati ezaugarri ezkor eta mespretxuzkoak egozte da. Holan, aurreretxien eta informaziorik ezaren gainean eratutako ikuspuntutik ikusten, pentsatzen eta tratatzen dira. Buruko osasunari dagokionez arazoak dabezan pertsonak dirala-eta aurretik ezin dala zer egingo daben jakin esaten da, ez dirala lan egiteko eta erabakiak hartze gaiza, ez dirala azkarregiak, ahul eta oldarkorrek baino. Estereotipo honeek eragina dabe besteek eurekiko dabezan jarrera eta jokaeretan. Estigma hau eta bereizkeria dira

sendatzeko eta bizimodu normalizatua eukiteko oztopo nagusiak.

Baina, buruko osasunaren inguruko arazoek danok bardin eragiten gaitue. Espainian bizilekurik ez daukien 40.000 lagun en artean, 10etik 4k tratamenduren bat jaso behar izango ei dabe Buruko Osasunerako Zerbitzuetatik. Biztanleria orokorrari dagokionez, 4tik 1ek jasango dau buruko nahasmenduren bat.


Zailtasunak askotxo dira: jarraipenak egiteko eta ahalbideratzeko laguntzarik eza; osasun-sistemaren oztopoak bizileku egonkorrik ez daben pertsonentzat; pertsonak banatzen saiatuz, osasun- eta gizarte-zerbitzuek erantzukizuna nork bere gain hartu ordez batak besteari emotea; pertsonaren ikuspuntu zatitua; bakarrik orain aldiari begiratzea eta erakundean oinarritutako arreta.

Askotariko gizataldeen bereizkeria be hortxe dago: emakumea eta buruko osasuna, kartzelan dagozanak, langabetuak, nagusiak...

Ufff buruko osasuna...

Irakurri barrero be mezu honen lehenengo paragrafoa eta zerumuga ikusiko dozu.

ZERO BEREIZKERIA



Gogoetak

Historia honetan zagoz?

Buruz buruko esperientziek estigma sendatzen deuskue. Hurreratu norbaitengana, entzun... horrek asko balio dau.

- [Bozeroaleak](#)
- [Emakumea eta buruko gaixotasuna](#)

Erreparasatu zure hizkera

Aurkitu dozu buruko sufrimentua estigmatizatzen dauan adiearazpenik? Entzun edo esan dozu noizbait "pitzatuta zagoz, "eskizofrenikoa da" lako gauzarik?

Salatu ikusten dozun estigma

- [Estigmen alerta](#)
- [Diskriminazioaren aurkako sinadura](#)